

HEZKUNTZA IKUSKARITZA

KANPO EKIMENA BATZORDEA

8

MARTXOA 2020

¿BADAKIZU...

...gure ikuskaritzan benetan berritzaleak garren?

...nola saiatzen diren eraberritzen Europako beste ikuskaritza batzuetan?

...nola sustatu dezakegun berrikuntza ikastetxeetan?

AGURRAK

Lankide agurgarriak:

Kanpo Ekintzarako Batzordetik berriro ere gure buletina bidaltzen dizuegu; bertan joan den 2019. urtean, SICI elkartearekin batera eginiko jardueri buruzko informazioa biltzen saiatu gara.

Urte osoko lan-gai nagusia izan da ikuskaritzak berrikuntzaren aurrean duen egitekoa, hau da, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen, ikastetxeen hobekuntzaren, geure ikuskaritza-antolaketaren edo, oro har, hezkuntza sistema osoaren hobekuntza dakarten aldaketen aurrean.

Galdera hauei buruzko eztabaida eta gogoeta egin genuen:

Zertan aldatu behar dugu geure ikuspegia beste alderdi interesdun batzuei hobetzen laguntzeko? Nola erabakitzen dugu zein diren berrikuntzarik onenak? Nola gauzatuko ditugu? Nola eramaten gaitu berrikuntzak aldaketara? Zer metodo berritzaile erabiltzen ditugu ikastetxeetako jardunbide egokiak identifikatu eta sustatzeko?

Bizi dugun egoerak ikastetxeak itxita eta etxean sartuta egon beharrak, irakatsi, ikasi eta taldean lan egiteko modu berriak praktikan jartzeko balio behar digu.

Aprobetxa dezagun aukera hori, eta har dezagun gure lan-arloko aurrerapen berritzaile gisa.

Agur bero bat.

Jose Angel Ayucar, Ikuskari nagusia.

EDUKIAK:

1- AGURRAK

2- SICI 2019 TXOSTENAREN LABURPENA: IKUSKARITZAREN BERRIKUNTZA

3- SICI-REN BERRIAK

4- BESTE ZENBAIT BERRI

5- HARREMANETARAKO



2- SICI 2019 TXOSTENAREN LABURPENA: IKUSKARITZAREN BERRIKUNTZA

2019. urtean, SICI elkarteak berrikuntzari eta ikuskaritzak arlo horretan duen egitekoari buruz eztabaidatu zuen. Horretarako hainbat lantegi antolatu zen, eta bazkide bakoitzak bere egoeraren berri eman eta bere kezkek, ideiak, eta etorkizun-planak partekatu zituen. Lantegi horietan (guztira hiru) gai hauei buruzko gogoeta egin zen:

- Nola definitzen dugu berrikuntza esperimendazioarekin edo aldaketarekin alderatuta?
- Zein dira berrikuntza sustatzeko modurik eraginkorrenak? Eskoletan? Ebaluazio-metodoetan? Lankidetzak-lanak alderdi interesdun guztien parte hartzea edo lidergo partekatuak dakarren esperimendazioa eskatzen du?
- Nola ebaluatu behar da praktika berritzaileen eragina? Egin daiteke berrikuntzaren “adierazle” bat?
- Zein dira partekatu ditzakegun esperimendu eta ezagutzak?
- Nola erabili dezakegu modu egokian eskoletako berrikuntzari buruzko ikerketa? (Looney, 2009: Assessment and innovation; Hopkins: Networks of innovation; Hargreaves, 2003)

Tailer bakoitzak galdera horietako batzuk aztertu zituen. Bulgariako tailerrean, (2019ko martxoan) indar eragileak eta ikuskaritze-praktika berritzaileen helburuak deskribatzen saiatu ziren; Madeiran burututakoan (2019ko maiatza), diseinatu beharreko estrategiei eta gaintu beharreko oztopoei buruz hitz egin genuen; eta Dublingoan (2019ko irailean) praktika berritzaileak aldaketa sitemiko bihurtzeko moduz jardun genuen.

2019ko azaroan Londresen batzar orokor bat egin zen, eta gaiari buruzko gogoeta eta ondorioak biltzen zituen dokumentua aurkeztu zen. Aldizkari honetan laburbildu ditugu.



SOFIAKO TAILERRA

1- Ikuskatze-praktika berritzaileak: indar eragileak eta helburuak.

Berrikuntzaren helburua irakas-kuntza-jardueretan eragitea da, eta, ikuskaritzaren gainbegirada eta laguntzari esker, irakasleen ongizatea ere susta daiteke.

2019ko martxoan, Bulgarian eginiko bileran berrikuntzaren definizioari buruzko gogoeta egin zen, praktikan adierazten duen ideia bera partekatze aldera.

Berrikuntzaren izaerari eta helburuei buruz hitz egin zen, ez baitira berdinak testuinguru guztietan. Kanpoko eragileak (gizartean gertatzen diren aldaketak, hezkuntza-politika desberdinak etab.) eta barne-eragileak daude (ikastetxeak edo erakundeak berak hobetu eta eraginkorra goa izan nahi duenean).


Bulgariako bileran, ordea, aurkezpenak egin zituzten ikuskaritzek (Bulgaria, Eskozia eta Ingalaterra) argi utzi zuten praktika berritzaileen arteko aldea.

Bulgarian, Hezkuntza Ministerioaren bultzadaren bitartez, eskolak lau arlo nagusitan berritzen saiatzen ari dira: hezkuntza-prozesuaren antolaketa edota edukia, eskola-kudeaketako praktika berriak, irakaskuntza-metodo berriak eta ikasketa-plan berriak.


Eskoizian, hezkuntza maila guztietan berrikuntza sustatzeko egindako praktika onenak bultzatzen dituzte. Praktika onenak ebaluazio-prozesu baten bidez antzematen dira, non ikuskaritzak eskolekin ebaluatzen duen. Biek galdera nagusi hau egiten dute: zenbateraino da ona ...? edo zenbateraino da ona gure eskola?

PRAISE eremua sortu dute (Purpose - Relationships - Awareness - Information gathering - Sharing information - Enabling: Helburua - Harremanak - Sensibilizazioa - Informazio-bilketa - Informazio partekatua - Aktibazioa) praktika onenen funtsezko oinarri gisa. Ikuskaritzak funtsezko egitekoa du, praktika onenak identifikatu eta zabaltzeko orduan.



How will the proposed framework help? 

It reduces the focus on data, particularly internal progress data. We hope this will help reduce unnecessary workload for teachers.



Presentation to SICI workshop, Bulgaria, 27/28 March 2019 Slide 7

OFSTED edo ordezkariak (Ingalaterra) azpimarratu zuen bere berrikuntza-planteamenduaren oinarria "garapen" ideia dela, ez "iraultza"; horrek esan nahi du planifikatutako pixkanakako aldaketa dela. Ingalaterran, irakasleek beldur handia diote ikuskaritzak ikastetxeetan egiten duen lanari, ahalmen arautzailegatik eta emaitzen eskaera handiagatik. Ekintza-esparru berri bat sortu dute, ikaslearen ongizatea, erantzukizuna eta gardentasuna bezalako funtsezko balioei harreta berezia eskaintzeko.

Bulgariako tailerrari buruz gehiago jakin nahi izanez gero:
<https://www.sici-inspectorates.eu/Activities/Workshops/Innovation-Driving-forces-and-goals>

2- Berrikuntza sustatzeko estrategiak eta gainditu beharreko eragozpenak

Bigarren tailerra Madeiran egin zen. Bertako Eskualdeko Hezkuntza Ikuskaritzaren arabera, aldaketa hezkuntza-sisteman eraginkorra izan dadin, berrikuntza eskala handian ezarri behar da, funtsezko zenbait neurri hartuz (behaketa, plangintzaren azterketa etab.).

Madeiran ikastetxe-ebaluazioak egin dira, eta hezkuntza-komunitate osoak parte hartu du (irakasleak, irakasleak ez diren langileak, ikasleak, tokiko agintarien ordezkariak, etab.). Azken txostena guztiekin erkarlanean burutzen da, eta hobekuntza-plan bat aurkezten da. Horrez gain, duela gutxi, eskola-ordutegi sistema berritzailea ezarri dute oinarrizko hezkuntzan, eta ebaluatzen ari dira.

Madeirako Tailerrean gomendio hau egin zaie ikuskariei:” Utz izeziozue zerrrendak egiaztatzeari ! Implika itzazue alderdi interesdun guztiak , eta ez ezazue ahaztu giza-ukitua”.

Tailerraren egitarauaren barnean, hiru ikuskaritzek (Eskozia, Euskal Herria eta Italia) mahai inguru bat antolatu zuten, berrikuntzaren aurrean hezkuntzak duen egitekoari buruz hitz egiteko. Eztabaidan, argi geratu zen ikuskaritzak berrikuntzaren benetako sustatzaileak izan daitezkeela, eskoletako praktiken kanpoko behatzaileak direlako eta lorpenak azpimarratu eta hobekuntza-arloak iradoki ditzaketelako.

Ikuskaritza bakoitzak berezko modua du berrikuntzaren gaia bere testuinguruan sartzeko. Adibidez, irakaskuntza-jardueraren behaketari dagokionez: Euskal Herriak jarraipen eta ikuskapen luzea burutzen du denboraren harian (ebaluazioak ikastetxe bakoitzean modu puntualean egiten dituzten Europako hainbat ikuskatze-estiloekin kontrajarriz); Eskoziak agente ez-profesionalak (gurasoak, ikasleak) erabiltzen ditu prozesuan; Italiak unibertsitateko adituengana jotzen du. Ikasgelako praktiken behaketa alderdi berritzailea izan daiteke, ikuskatzailea ikasgelan sartzean ohikoa ez den testuinguruan sartzeko baita.



Ikastetxeen ebaluazioan norabide-aldaketa bat nabari da. Gero eta herrialde gehiagok jartzen dute arreta ikaslearen gaitasunetan eta ez haren ezagupenen maila edo ebaluazioan. Ikaslearen ongizatearen sustapena, eragile guztien arteko talde-lana, ikasketa-esperientzia baikorrago bat eskaintzea, etab. gaur egun proposatzen ari diren helburuak dira.

Txostenak, atal honetan, Janet Looneyren berrikuntza eta ebaluazioaren arteko loturari buruzko lana aipatzen du (2009, "Assessment and innovation in Education", OECD Education Working Papers, N° 24, OCDE Publishing, Paris, <https://doi.org/10.1787/222814543073>). Aipatutako ikerketak dioenez, arazoa datza irakasleak eta eskolak ebaluatzeko eskola-erabiltzak erabiltzean, eta bermatu behar-ko litzateke hezkuntza-sistemak ebaluatzeko erabiltzen diren sistemak ez dutela berrikuntzari loturiko arriskuen onarpena erreprimitzen eta ikasleen berrikuntza-gaitasunak sustatzen dituztela.

Berrikuntzarako dauden eragozpenei dagokienez, txostenean honako hauek aipatzen dira: hizkuntza-baliabide, baliabide logistiko, teknologiko eta finantza-baliabide eza; itxaropen altuegiak sortzea, eskola-ingurune berean ikuspegi kontraesankorrek izatea; ulermen falta, beharbada, inplikaturako pertsonen artean komunikazio onik ez dagoelako; irakasleen motibazio eskasa eta prestakuntza falta; gurasoek edo ikasleek ere jarduera berritzaileen aurrean duten eresistentzia; aldatzeko edo espero den maila ez emateko beldurra; etab.

Funchal tailerrari buruz gehiago jakin nahi izanez gero:

<https://www.sici-inspectorates.eu/Activities/Workshops/Strategies-and-obstacles-for-innovation,-system-wi>



Madeirako tailerra

3- Praktika berritzaileen txertaketa ikuskapenean, beste herrialde batzuetako esperientzia: praktika, erronkak, ikaskuntza eta ondorioak

Hirugarren tailerra Dublinen egin zen, non saiatu ziren zehazten nolakoak izan daitezkeen ikaskuntza-ingurune berritzaileak eta nola gauza ditzaketen ikuskariek.

Irlandako ikuskaritzaren esperientzia aurkeztu zuten, zeina lankidetzaren eta lidergo-metodoak taldean sortu nahian dabilen, arreta datuen analisian baino behaketan jarriz eta ikuskaritzak deitu dezakeen balioa ahalik eta gehien aprobetxatuz. Horretarako eragile garrantzitsuenetako bat ikastetxeen autoebaluazioa da. Uste dute ikasgela behatzea eta profesionalekin hitz egitea beharrezkoa dela eskolen eraginkortasuna areagotzeko.

Etengabe aldatzen ari den egoera honetan, praktika berritzaileek nola bultzatu dezaketen hezkuntza-sistemen hobekuntzarako aldaketa galdetu ondoren, garai berriei egokitutako ikaskuntza-ingurune berritzaile eta iraunkorrak sortzeaz hitz egin zen. Ikuskaritzek euren ingurune berritzaileak sustatzen badituzte, bidea erakutsi ahal izango diete beste hezkuntza-eremu batzuei.



Europar hainbat ikuskapen-mota dago, eta txostenean gehien nabarmentzen diren ideiak hauek dira: gaikako ikuspegia izatea (Suedia); ikasleen ahotsa aintzat hartzea (Irlanda); ikastetxeen autoebaluazioa sustatzea (gehiengoa); komunikazioa eta konfiantza sustatzea (orokorra); ezagutzaren bitartekariak izatea, ebaluazio-prozesuaren jabetza alderdi interesdun guztiekin partekatuz (Islandia), etab.

Hona hemen ohiko ikuskapen-eredu bat:

Ikuskariek lehen-tasuna identifikatzen dute.	Ikuskariek proposamenak egiten dituzte	Proposamenak argitaratu eta kontsulta egiten dute	Entseguak eskole-tan	Eredua aldatzen da	Eskola-sisteman ezartzen da
--	--	---	----------------------	--------------------	-----------------------------

Haurrak babestu eta zaintzeko ikuskapen-eredu bat honako hau izango litzateke:

Ikuskariek lehen-tasuna identifikatzen dute	KOLABORATZAILEEI KONTSULTATZEN DIETE	ESKOLETAN ENTZUN ETA IKERTZEKO ALDIA	Ikuskariek lehen proposamen-zirriborroak egiten dituzte	KOLABORATZAILEEI KONTSULTATZEN DIETE	Entseguak eskoletan	EREDUA BERRIRO DISEINATZEN DA	ENTSEGUAK ESKOLETAN	Aldaketak egin eta bukatzen da	Eskola-sisteman ezartzen da.
---	---	---	---	---	---------------------	--------------------------------------	----------------------------	--------------------------------	------------------------------

Dublingo tailerrari buruz gehiago jakin nahi izanez gero:

<https://www.sici-inspectorates.eu/Activities/Workshops/Embedding-Innovative-Inspection-Practice>


Ondorioak

Ikuskaritza izan daiteke indar sustatzaile bat, hezkuntza komunitate osoaren, eta bereziki ikasleen arrakasta ziurtatuko duten berrikuntzei hasiera eman, ebaluatu eta eskolan txertatzeko.

Horretarako, hainbat eremutan jardun behar dute: beste hainbat alderdi interesduneko harremanak landu behar dituzte; eskolako agintariekiko eta irakasleekiko konfiantza, elkarrizketa eta konpromezua sustatu behar dituzte, eta berrikuntzaren indar-sustatzaile lana betetzeko trebetasunak garatu behar dituzte.

*Txosten osoa ikuskaritza-
ren kanpoko webguneko
KANPO EKINTZA ata-
lean aurkituko duzue:*

*[http://www.euskadi.eus/
comisión-de-acción-exterior-
v0/web01-a2hikus/es/](http://www.euskadi.eus/comision-de-accion-exterior-v0/web01-a2hikus/es/)*



3- SICI-REN BERRIAK

2016-2020 aldirako ezarritako plan estrategikoa behar bezala betetzen ari da. Proposatutako helburuen arteko bat eskualdeetako koordinatzaileen eta koordinatzaile nazionalen arteko harremanak sustatzea zen, urtean behin bilduz, buletin bat argitaratuz eta bazkide diren ikuskaritzen ezaugarriak laburbiltzen dituen txostena prestatuz.

Kanpo Ekimenerako Batzordeak SICIko koordinatzaile kargua txandaka beteko zela erabaki zuen. 2020. urtean Alicia Epeldek, Arabako Ikuskaritzako lankideak, beteko du kargu hori.

Plan estrategikoaren bigarren helburua ikuskaritzen arteko lankidetzako proiektuak sustatzea da. Eskualde-taldeak sortu dira (adibidez, hizkuntza germaniarreko eskualdeak).

Hirugarren helburua da askotariko komunikazio-estrategiak bultzatzea. Horretarako elkarrearen webgunea hobetu da; nazioa arteko erakundeekin elkarlanean ari dira (ELGE, Europako aditu taldeak, ikertzaileak, etab.); BIBESOIN (Better Inspection for Better Social Inclusion) proiektuan parte hartzen dute, ERASMUS+ programaren bidez; hainbat txosten prestatu dira (Impact, 2018an, e Innovative practices of inspection, 2019an, zeina buletin honetan laburbildu dizuegun; eta European school inspection and evaluation liburua argitaratu da (liburuaren laburpena aurreko buletinean duzue).

Bazkide-kopurua handitzen ari da, eta oraindik bazkide ez diren hainbat herrialderi tailerretan parte hartzeko gonbitea egin zaie (Islandia, Azerbaijan, Ghana, Jamaika, etab.).

2020. urterako jarduera hauek aurreikusi dira:

DATA	HERRIALDEA	GAIA
2020ko martxoaren 5a eta 6a	Herbehereak (Utrecht)	Ikuskapenen kalitate kudeaketa, balio-judizio fidagarriak, zuzenak eta eraginkorrek egiteko.
2020ko maiatzaren 1a eta 22a *	Txekiar Errepublikak (Praga)	Ikuskapenen kalitate hobekuntza, ikas-tetxeetan dugun eraginari buruzko informazioaren bidez.
2020ko irailaren 24a eta 25a	Finlandia	Kalitatearen kudeaketari buruzko ebaluaketa: ikuspuntu nazionala nacional
2020ko azaroaren 19a eta 20a	Frantzia	Batzar Orokorra

* COVID19 egoera dela-eta, tailer hori bertan behera utzi da.

4- BESTE ZENBAIT BERRI

SIClren jardueretan aktiboki parte hartzeaz gain, Kanpo Ekimenerako taldeak bestelako ekintzak planifikatu ditu 2020. urterako:

- Prestakuntza-jardunaldia: atzerriko bi txostengile (Harold Hislop, Irlandako ikuskatzaile burua, eta Daniel Muijs, OFSTEDeko ikerketa-zuzendaria) izango dira bertan, eta ikuskapenaren berrikuntzarekin loturiko gaiak jorratuko dituzte. Hasiera batean prestakuntza jardunaldi hori maiatzaren 7rako aurreikusita zegoen, baina COVID19 egoera dela-eta, atzeratu egin da, eta oraingoz ez du data zehatzik.
- Gazteleraz hitz egiten duten Frantziako 4/5 ikuskatzailek Bilbo bisitatuko dute (job-shadowing), maiatzean, edo aurrerago, egoeraren arabera.
- Ikuskatzaile frantziarrentzako astebeteko prestakuntza saioetan parte-hartzea, Poitiersen, martxoan. Lucia Barrutia gure lankidea joango da prestakuntza horretara, bertan behera uzten ez bada.
- ERASMUS+eko bi proiektutan parte hartzeko proposamena: bat, aurreko BIBESOIN proiektuan landutako materialak praktikan jartzeari buruzkoa, SIClrekin elkartutako erakunde gisa (KA3 batean izango litzateke); eta bestea KA2 bateko bazkide partehartzaile gisa, proiektuaren bazkide koordinatzailea ikuskaritza turkiarra izango delarik. Eskabideak bidali dira, eta onarpenaren baietzaren zain gaude.
- Frantziako ikuskaritza nagusiko ikuskatzaile baten balizko bisitaldia, urrian.
- Balizko parte-hartzea, ebaluazioari buruzko nazioarteko biltzar batean, Parisen, urrian.

Aipatuakoaz gain, 2021eko maiatzerako, SIClren tailer bat antolatzeko eskaini dugu geure burua.

5- HARREMANETARAKO

Honako hau da KANPO EKIMENAREN webgunea:

<http://www.euskadi.eus/informacion/dimension-europea-de-la-inspeccion-en-la-educacion/web01-a2hikus/es/>



Iradokizun postontzia:

:

huisg004@euskadi.eus